



## Kutxa didaktikoa Aisia eta aisialdia

*Aisia eta Aisialdia* kutxak behin eguneroko zereginak amaitu ondoren aisialdian erabilitako objektuak biltzen ditu. XIX. mendearen amaierakoak eta XX. mendearen hasierakoak dira.

### Izozki-neurria

Izozki-zatia neurtzeko tresna. Barkillo bat jartzen da atzealdean eta prezioaren arabera izozkiz betetzen da ertzeraino eta beste barkillo bat jartzen da gainean *sandwich* baten gisara. Palankarekin izozkiaren kantitatea aukeratu daiteke eta, azkenik, guztia ateratzen da bezeroari emateko. Izozkia udako denbora librearekin lotzen da.





## Txokolate-ontzia

Estalki zulatua duen kobrezko ontzi mailukatua. Zulotik zurezko irabiagailua sartzen da, eragiteko eta txokolatea sutan urtzeko. Barrualdea eztaunuz bustita dauka eta oinarria brontzez. Heldulekua burdinazkoa da. Txokolate beroa ematen zen bereziki, lagun edo ahaideen etxera bisitan joaterakoan (jaiak, urtebetetzeak, etab.).

## Bola gaseosa

Barruan kristalezko bolatxo bat duen beirazko gaseosazko botila betegarria eta itzulgarria. Hortaz, botila beteta dagoenean, «bola» ahorraino igotzen da, ontzia itxita eutsiz gasak eragiten duen presioagatik.

Zuzenean botilatik edaten zen boloa mihiaz barrura bultzatuz.

Gaseosa hurrek eta helduek jaiegunetan hartzen zuten freskagarria zen.



## Bingo-kartoiak

Bingoa mahai-joko bat da, familia edo lagunartean jolasteko.

## Linterna magikoa

Beirazko plaka inpresionatu edo pintatuak dituen proiektatzeko aparatua. Albo batean, ate txikia duen latorrizko tiradera du eta kea ateratzeko tximinia zilindrikoa. Barruan petroliozko lanpara darama eta aurrealdean beirazko handipen-lentedun objektiboa. Honen atzean beirazko plakak jartzen dira proiektatuak izan daitezten.



## Argazki-kamera


Larrua imitatzen duen oihalez estalitako zurezko tiraderaz osatutako kamera iluna, aurrealdeko lente batekin eta irudia fokuratzea ahalbidetzen duen bisore batekin.

## Zinema-aretozainaren linterna

Tamaina handiko bi pila gordetzeko lekua duen metalezko karkasadun linterna. Piezaren goialdean heldulekua du eta, aurrealdean, parabola islatzailea duen foku handia. Aurrealdeko fokuari gainean palanka bat dauka linterna piztu eta itzaltzeko.

Pertsonei sarreratik zineman zegokien eserlekuraino laguntzeko erabiltzen zen. Ohikoa zen nerabeek lan hori egitea, filma ikusi ahal izatearen truke.





### Kartoizko diskoa

«DURIUN» markako aparatuan erreproduzio fonografikoa egiteko erabiltzen zen kartoizko orri-zirkular moduko diskoa. Erdian «Jota Navarra» jartzen duen etiketa dauka.

### Xarea eta larruzko pilota

- Zumez edo kurbatutako zurezko eraztun lodi batez egindako erreminta. Barrutik tentsio gutxirekin lotutako soka-sare bat doa, pilota frontoirantz jaso eta jaurtitzeko aukera ematen duena, eskumuturreko kolpearekin bat datorren besoaren mugimenduaz lagunduta.

- Erabilitako pilotak larruz estalita daude eta guztira 83 g-ko pisua dute. Bikoteka jokatzen da.



### Tabako iragazkia, pipa eta txiskeroa

Erretzeko tresnak:

- Tabako-iragazkia, galbahe txiki eta biribildu gisa. Goiko aldean, tabako xehatua jartzen da eta behekoan, zatirik meheenak erortzen joaten dira.

- Bi tonalitate dituen zurez egindako tabakoa erretzeko pipa.

- Metxa eta txinparta-harria duen txiskeroa. Harria, erruleta marratua eta metxa-punta lotuta eta elkarrekin

mantentzen dituen euskarri metalikoa da. Metxa txinpartarekin pizten da eta haren gainean putz eginez, segundo gutxitan txingar handiagoa egitea lortzen da.